

IKASKETA POLITIKOA, PARTE-HARTZEA ETA AKTIBISMOA GAZTEEN AHOTSETAN

Ane Larrinaga Renteria (argtz.)

UEU, 243 or.

Bilbo, 2024

Gazteek ez dute paso egiten. *Habitus* politikoaren egituratze-elementuak eta disposizioak

Gizarte Zientzietako fakultateetan ezinbesteko bilakatu behar den ikerketa-liburua da Larrinagak, Iraolak, Odriozolak, Amurriok eta Zabalok (2024) UEUrekin argitaratu duten *Ikasketa politikoa, parte-hartzea eta aktibismoa gazteen ahotsetan* liburua. Gazteen dinamika politikoen ulerkeraz haratago doan saiakera da hau; egun, kasu praktikoekin tartekatuz, Soziologian eta Zientzia Politikoan pil-pilean dauden teorian sakontzeko aukera ematen digun horietarikoa.



1. irudia. *Ikasketa politikoa, parte-hartzea eta aktibismoa gazteen ahotsetan* argitalpenaren azala.

Sarrera: gazteen politizazio-dinamikak problematizatu eta habitus politikoa elementuz josi

Liburua ikerketa sakon baten emaitza da, 2018-2022 bitartean burututako azterketaren ondorioz garatua. Egileek gazteen parte-hartze politikoa, aktibismoa eta herritartasunaren egituraketa aztertzen dituzte. Bourdieu-ren *habitus* kontzeptutik abiatuta (Bourdieu, 1991, 2000, 2011), gazteen disposizio iraunkorren eta eramangarrien sistema multzoari loturiko posizio sozialak, *zelaian* egituratzen dituzten kokapenak ulertu, identifikatu eta azaltzen dituzte. Horri lotuta, ikertzaileek testuinguruko errealitatea Modernitate Berantiarreko paradigmaren kokatzen dute.

Gazteen inguruko iruditegia hankaz gora ipintzen dute egileek. Alegia, Modernitate Berantiarrean gazteen nortasun-elementutzat jotzen diren indibidualtasuna eta axolagabetasuna edukiz betetzen dituzte gerturapen kualitatibo baten bidez. Hau da, ahalik eta aniztasun handiena osatzen duen lagina erabiliz, gazte politizatuak eta ez-politizatuak elkarrizketatu eta eztabaidan ipini dituzte gizarte-diskurtsoa deskribatu eta aztertzeko asmoz. Izan ere, egileek adierazten duten bezala, «Soziologiaren egin-kizun nagusietako bat, gizarte-zientzia gisa, aurreiritzi eta estereotipo horiek desmuntatzea da, haien azpian dagoen errealitatea argitara ekarri» (Larrinaga *et al.*, 2024).

«Gazteria» ikerketa-lerro emankorrak eskaintzen dituen gaia da, zeinak geroa eta oraina tartekatzen dituzten behar politiko eta soziologiko helduzentrikoei erantzuten dieten kezketatik sortu diren. Izan ere, «gazteak» kategoria sozial modernoa da, aurretik, umeen eta helduen arteko arorik ez baitzen antzematen (Larrinaga *et al.*, 2024, 11. or.). Hautemate horrek kezka sorrarazten digu, batik bat, gaztetasun-aroa luzatzen ari delako, prekarizazio-garaia luzatze batekin lotuta. Hau da, ekidinezinaren diren behar materialak eta ez-materialak (familia, autoa, etxebizitza, lana...) eskuratzeko adina *kapital ekonomiko, kultural eta sozial* dituenen bilakatzen da subjektu bat heldu.

Era berean, inposatuta dugun sistema sozial hau krisian dagoela (Olariaga, 2021) eta egitura politikoei gero eta sinesgarritasun gutxiago daukatela ikusi da (Mair, 2019). Aitzitik, sistema sozialaren eta politikoaren aurreko jarrera ezkorrek ez dute adierazten politikaz paso egiten denik; bereziki, politika bere zentzu zabalean ulertzen dugunean. Alegia, gazteek propio dituzte dinamika performatiboak politikan murgiltzeko (Larrinaga *et al.*, 2025), non eguneroko jarrera partikularretatik ere eraikitzen duten mundua eraldatzeko haien zentzua.

Horregatik guztiagatik, liburuaren xedea gazteen politizazio-dinamikak egituratzen dituzten elementuen ezagutzea da; edo, egileen hitzetan: «Hego Euskal Herriko egungo testuinguru soziopolitikoan belaunaldi gazteen sozializazio politikoan parte hartzen duen zenbait mekanismo aztertzeko, eta ikasketa-esperimentazio horren ondorioz identifikatzea eta azaltzea, bereziki praktika aktibista berritzaileak». Zentzu horretan, nahiz eta ikerketa kualitatibotik heldu zaion ikerketari, ahalik eta lagin esanguratsuena lortzen saiatu dira ikertzaileak. Ondorioz, lagina ez da zoriz egituratu eta, kontrari, profil oso zehatzak topatzea zuten helburu (adina, sexua, tokiak, hizkuntza, alderdia, erakundea...). Gerturatze hermeneutikoak bermatzen du, beraz, gazteek sortzen duten diskurtso sozialaren azterketa; eta, eginkizun

horretarako, 40 elkarrizketa sakon eta 4 eztabaida-talde burutu dituzte (Larrinaga *et al.*, 2024, 32-34. or.).

Liburuaren nondik norakoak: begirada azkar bat

Liburuak lau azpiataletan banatuta dauden bi atal nagusi ditu, ikerketaren urratsak ardazten dituztenak gainera. Lehenengo zatian, *Gazteen parte-hartze politikoa, aktibismoa eta herritartasun moldeak aldaketa-garaian* atalean, gazteak orokorrean aztertzeko marko teorikoaren aurrekariak azaltzen zaizkigu, hurrengo ataletarako sarbidea emanez. Bigarrenean, aldiz, *Ezker independentistako gazteen aktibismoa aldaketa-garaian*, ezker independentistan oinarritutako laginerako markoa eraikitzen da; horretarako zehaztasun teorikoak ardaztuz.

Kapitulu guztiek autonomia nahikoa duten arren, elkarren osagarri bezala ulertu behar ditugu. Alegia, ikuspegi orokor batetik abiatuta, zirrikitu teoriko, metodologiko eta analitikoak osatzen dira kapituluaren garapenean.

Lehenengo atalaren barruan, eta lehen azpiatal gisa, *Gazteak, politika eta parte-hartze politikoa* kapitulua dugu. Hemen, idazleek, ikerketarako erabili duten marko teoriko orokorraren garapen sakon eta gogorra egiteaz gainera, helburuak eta metodologia zehazten dizkigute. Azkenik, liburuak duen egitura ere azaltzen zaigu atal honen amaieran.

Bigarren kapituluan, *Ikasketa eta ibilbide politiko nagusiak gazte-trantsizioetan* izenekoan, gazteen parte-hartzearen bilakaeraz eta egungo paradigmatz eztabaidatzen da. Hau da, politikoa denaz aritu eta gizartean parte hartzeko formak aletzen dituzte, hauek bi multzotan bereiziz: politizatuak eta ez-politizatuak; lehenengoak beste hiru forma hartzen dituelarik.

Hirugarrenean, *Intentsitate txikiko herritartasunak* atalean, indibidualismoaren eta Modernitate Berantiarreko gazteen mundu politikoaren ulerkera eta politikoa izateko moldeak azaltzen dituzte. Horren ondorioz, ikertzaileak azalpen dikotomikoetatik (parte-hartzea/apatia, interesa/interesik eza) urrundu eta herritartasunaren ulerkera berriez hitz egiteko aukera bilakatzen dute.

Aurrekoaren segidan, laugarren kapituluan, *Aktibismoan azaleratzen ari diren herritartasunez* hitz egiten dute ikertzaileek. Hau da, *habitus* politikoa bereganatzeko testuinguruaren garrantzia azpimarratzen dute; *habitus* hau, Modernitate Berantiarreko logiketara moldatzeko gazteek dituzten mekanismo performatiboak azalduz.

Bigarren zatiko zehaztasunak azalduta, liburuak bosgarren kapituluarekin jarraitzen du: *Aktibismoaren ikasketa politikoa azken hamarkadako euskal testuinguru politikoan*. Honetan, ezker independentistako gazteen testuingurua azaldu eta haien hezkuntza politikoa zertan, non, nola eta nondik egituratu den argitzen dute. *Habitus* politikoa egituratzeko testuinguruaren garrantzia azpimarratuta, horren lekukotasunarekin eta garaian aldaketekin batera, egileek azaltzen digute nola gauzatzen dituzten egungo gazte politizatu independentistek Modernitate eta Kapitalismo Berantiarreko baldintzetara egokitutako praktikak.

Seigarren kapituluan, *Genero-ordena aktibismoaren ikasketa-prozesuan* izenean, gazte aktibista independentisten artean genero-sistemak duen erreprodukzioarako joera berretsi duten arren, hiru faktoretan kokatu dituzte etorkizunera begira aintzat hartu beharko diren genero-sistema eraldatzeko bidean dauden eragileak. Era horretan, konplexutasunean ardazten dituzte argiak eta ilunak; gizartean dauden zapalkuntza-mekanismoetatik haratago, gizarte-mugimendu eta eragile politikoetan lidergo feministen agentziak eraldaketarako duen garrantzia azpimarratuz (Larrinaga, 2023; Larrinaga *et al.*, 2022).

Hurrengo kapituluan, zazpigarrenean, *Kontrapubliko subalternoak eta praktika digitalak aktibismoan* deritzonean, Modernitate Berantiarrak berezkoak dituen komunikazio forma berriek gazte aktibisten agentzian duten eragina aztertzen dute. Beste batzuen artean, interesgarria da nola lurraldetasuna, nazioari erreferentzia eginik, marko digitalean ere erreproduzitzen duten gazteek (gai hori hemen ere aztertu dute egileek: Odriozola, Iraola eta Larrinaga, 2022).

Azken kapituluan, *Modernitate Berantiarreko agenda prefiguratiboak aktibismo independentistan txertatzen* izenekoan, gazteek garaiko egiturazko aldaketa azkarretara moldatzeko duten gaitasuna azaltzen da. Kapitulu honetan, borroka molde zaharretatik (abertzaletasuna edo subiranotasun-borrokak) bestelakoetara (beste batzuen artean feminismoa edo ekologismoa) salto egin dutela azaltzen da. Ondorio nagusietako bat egitura politikoaren aldaketa izanik, zentralismotik aldentuz (ikus: Larrinaga *et al.*, 2025).

Analisi kritikoa eta eztabaida

Ikusi den bezala, liburuak gazteen *habitus* politikoaren egituratzearen elementuak aurkeztu eta eztabaidan ipintzen ditu egungo testuinguruan. Ikertzaileek argi uzten digute gazteak ezin ditugula talde homogeneo bezala ikusi eta sailkatu. Azken hori ekarpen interesgarria da; izan ere, konplexutasuna ardazteko ahalmena izan dute egungo gazteen inguruko aurreiritzi monolitikoen aurrean.

Zentzu horretan, zaila da irudikatzea *habitus*aren elementuak, are zailagoa horiek aztertzea; alegia, *egituratutako egitura egituratzailearen* edukiak konfiguratzea. Familia, komunitatea, estatuak, historia, kultura, Internet, generoak, adin-tartea... hainbat egiturak ehuntzen baitute haien nortasuna, eta ondorioz, politizazioaren bidea.

Hala ere, interesgarria izango litzateke *habitus* politikoaren egituratzean testuinguru geografikoak duen garrantzia, behintzat bi zentzutan, aztertuko balitz: estatu ardatza eta nazio-lurraldeko zentro-periferia ardatza. Egia da testuinguru politikoa, familia/komunitate *habitus*a alegia, behin eta berriz azpimarratu dela, baina are interesgarriagoa bilakatuko litzateke aztergai den kasua, Hego Euskal Herriko gazteak alegia, Ipar Euskal Herriko gazteekin ere osatuko balitz. Izan ere, euskal nazionalismoak izan dituen prozesu ezberdinengatik (Ahedo, 2006a, 2006b; Ahedo eta Lekue, 2024), politizazioa ere ezberdina izango dela aurreikus dezakegu. Kasu honetan, estatuak daukan muga kognitiboak ezartzeko gaitasuna aztertze

aukera izango genuke; lurraldetasunetik produzitzen den nortasuna (Zaldúa-Calleja, 2024) politikaren ulerkerarekin lotuz.

Bide beretik, nazioa ezin dugu termino homogeneoetan ulertu (Zabalo, 1993, 2006; Zaldúa-Calleja, 2022). Ezta bertan bizi diren gazteak ere. Horregatik, nazio-lurraldeko testuinguruak aintzat hartzea interesgarria jotzen dut zentro-periferia logikaz (nazioari loturik) gazteen politizazio-dinamikak egituratzen dituzten elementuak ulertu, aztertu eta konparatzeko. Izan ere, nortasun politikoaren egituratzean aldaerak egon daitezkeela uste dut.

Liburuak bestelako ikerketa-lerro bat ere zabaltzen digula esango nuke, oso egunekoa eta berriki masiboki hedatu diren teknologia-tresnei lotuta dagoena. Hau da, ikertzaileek gazteek sare sozialetan erreproduzitzen dituzten nortasun-elementuak aztertu dituzten arren, ikertzeke utzi dizkigute adimen artifiziala duten tresnek gure egunerokotasunean eragiten dituzten ondorio kognitiboak, baita gure mundu-ikuskeran ere. Ezagututa tresna hauek izan duten arrakasta, baita dituzten mugak ere, muturreko arrazionaltasun zapaltzaileek (Afudo eta G. Liberal, 2024; Crawford, 2023; Peirano, 2020) gizakiongan, eta bereziki gazteengan, dituzten eraginak aztertu beharko genituzke.

Azkenik, liburuan zehar, ikertzaileek beren metodologia eta marko teorikoa aintzat hartuta, ikerketak dituen mugak luze aipatu dituzte, mugetatik etorkizunerako balizko ikerketa-proiektuak proposatuz. Beraz, mugak baino areago, ikertzen jarraitzeko motiboak topatu dizkigutela esango nuke.

Ondorioak

Tokian tokiko gizarteak erlekume gisara ulertzea gustuko dut (Berardi, 2017). Hau da, inkontzienteki koordinatuta dagoen askotariko jende-sare bat bezala ulertzen dut gizartea. Horrek bizi dugun garaiko konplexutasuna ulertzeko gako bat ematen digula uste dut, iritzi zurrun eta irmoak baztertuz. Gazteak kategoria ez da homogeneoa, ez da erraza eta, bizitza bezala, testuinguru eta garaiko erronken antzera, dinamikoa da.

Hori dela eta, gazteak bere konplexutasunean ulertzea ezinbesteko afera dugu, mundu soziala ulertu nahi dugunontzat. Zentzu horretan, gazteek eta helduek adinaren, sexuaren, kapital ekonomiko edo sozialaren arabera beharrian ezberdinak dituzten arren, denontzat duinagoa izan daitekeen mundua eraikitzeko errealitatea ezagutzea oso garrantzitsua dugu.

Gauzak horrela, Gizarte Zientzien Fakultatean, bereziki Soziologia eta Zientzia Politikoetako graduari lantzeko oso liburu aproposa dela azpimarratu nahiko nuke. Gazteen marko kognitiboa ulertzeko tresnak eskaini eta, esan bezala, ertz askotatik heltzen baitzaio gaiari. Azkenik, liburua gomendagarria dela uste dut soziologia politikoan formakuntza hartzen duten horientzat, graduatuko ikasleentzat, nazionalismo, demokrazia, mugimendu sozial edo politikoen ikertzaileentzat, gizartea ulertzeko beharra dutenentzat, baita soziologo eta politologo ororentzat ere.

Testu honetan aipaturiko erreferentzia bibliografikoak

- Afudo Díaz, U., eta G. Liberal, K. (2024). *El algoritmo paternalista*. Katakarak.
- Ahedo Gurrutxaga, I. (2006/a). *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005) Volumen I*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Ahedo Gurrutxaga, I. (2006/b). *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005) Volumen II*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Ahedo, I., eta Lekue, I. (2024). Collaborative governance and irruption in Northern Basque Country: An irruptive governance model? (Collaborative governance and irruption in Northern Basque Country: an irruptive governance model?). *Oñati Socio-Legal Series*. <https://doi.org/10.35295/osls.iisl.1879>
- Berardi, F. (2017). *Fenomenología del fin. Sensibilidad y mutación conectiva*. Caja Negra.
- Bourdieu, P. (1991). *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*. Taurus Humanidades.
- Bourdieu, P. (2000). *Cuestiones de sociología* (3. arg.). Akal.
- Bourdieu, P. (2011). *Las estrategias de la reproducción social*. Siglo XXI.
- Crawford, K. (2023). *Atlas de la IA. Poder, política y costes planetarios de la Inteligencia Artificial*. (1. arg.). Ned ediciones.
- Larrinaga Renteria, A. (2023). Generoa politika liskartsuaren ikasketan. Gazte aktibisten eredu berrikusketa Hego Euskal Herriko ziklo politikoaren aldetan. *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 125. <https://doi.org/10.26876/uztaro.125.2023.5>
- Larrinaga Renteria, A., Iraola Arretxe, I., Odriozola Irizar, O., Amurrio Velez, M., eta Zabalo Bilbao, J. (2024). *Ikasketa politikoa, parte-hartzea eta aktibismoa gazteen ahotsetan*. UEU.
- Larrinaga Renteria, A., Iraola Arretxe, I., Odriozola Irizar, O., Amurrio Velez, M., eta Zabalo Bilbao, J. (2025). Prefigurative politics and sub-state nationalist movements. The case of young Basque-nationalist left activists. *Social Identities*, 1-17. <https://doi-org.ehu.idm.oclc.org/10.1080/13504630.2025.2470457>
- Larrinaga Renteria, A., Odriozola, O., Iraola, I., Amurrio, M., eta Epelde, M. (2022). Gender and agency in the political learning of contentious activism. Reviewing activist models of young people in the new political cycle in the Basque Country. *Journal of Youth Studies*, 27(3), 342-357. <https://doi.org/10.1080/13676261.2022.2128640>
- Mair, P. (2019). *Gobernando el vacío. La banalización de la democracia occidental*. Alianza Editorial.
- Odriozola, O., Iraola Arretxe, I., eta Larrinaga Renteria, A. (2022). What tools should we use?: Politicized youth's perspectives on digital activism in the Basque Country. *Catalan Journal of Communication and Cultural Studies*, 14(2), 267-285. https://doi.org/10.1386/cjcs_00072_1
- Olariaga Azkarate, A. (2021). Garai baten mugetan. *JAKIN*, 243, 67-80.
- Peirano, M. (2020). *El enemigo conoce el sistema. Manipulación de ideas, personas e influencias después de la economía de la atención*. (8. arg.). Debate.
- Zabalo Bilbao, J. (1993). *Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea* [UPV/EHU]. <https://www.inguma.eus/egilea/ikusi/julen-zabalo-bilbao?hizkuntza=esetaordena=tituluetaamota=phdetapage=1>
- Zabalo Bilbao, J. (2006). Nacionalismo vasco: El discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica. *Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas (RIPS)*, 5(1), 83-94.
- Zaldúa-Calleja, I. (2022). Fronteras administrativas frente a construcciones cognitivas. La nueva dialéctica democrática del siglo XXI vs la construcción nacional en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Reflexión crítica. *Críticas y Resistencias*, 14, 33-45. <https://www.criticayresistencias.com.ar/revista/article/view/267>

Zaldúa-Calleja, I. (2024). Lurraldetasuna eta subiranotasuna mugimendu ekologistaren oinarrian. Bizi!-ko adibidea: Ekologismotik euskal nazionalismorako loturak. *Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria = Revista vasca de sociología y ciencia política*, 76, 42-64. <https://doi.org/10.18543/INGURUAK.258>

Iñaki Zaldúa Calleja

